

IRAGARKIA, LAGUNTZAILE KATEGORIEN AZTERKETAREN ORDUTEGIA ALDATZEKO ETA OPOSIZIO LEHIAKETA BIDEZ OSATEK-EN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO IDAZKARIAREN AZTERKETA KAUTELAZ ETETEKO.

2023ko abenduaren 22ko iragarkiaren bidez, erradiologiako mediku espezialista, kalitate-teknikari, administrazioko ofizial, hizkuntza-normalizazioko teknikari, laguntzaile, teknikari manipulatzaile eta idazkari izateko azterketa-egunei, lekuei eta ordutegiei buruzko informazioa argitaratu zen.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2024ko otsailaren 15eko xedapen baten bidez, kautelaz eten zen 2023ko azaroaren 14ko onartuen eta baztertuen zerrenda. Horren bidez onartu zen OSATEKeko idazkari kategorian lan-kontratu finkodun langile izateko onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, oposizio-lehiaketa bidez.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Xedapen honekin batera doan eranskinaren bidez onartzea azterketako ordutegiaren aldaketa, laguntzaileen kategorian.

Bigarrena.- Idazkari kategoriaren azterketa kautelaz etetea.

Hirugarrena.- Iragarki hau OSATEKen webgunean eta Campo & Ochandiano aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Bilbao, 2024ko otsailaren 19a.
Zuzendari gerentea

OSATEK

Josu Xabier Llano Hernaiz